




Georges Habache.

Habache lider palestinarra bake konferentziaren kontra azaldu zen

DONOSTIA

Georges Habache, PAE, Palestinako Askapenerako Erakundearen barnean dagoen Askapenerako Fronte Herrikoia lidera Ekialde Erdiko bake konferentziaren kontra azaldu zen. Palestinako Kongresuko estatu idazkariak prestatutako bake konferentziari uko egin zieziaion eskatu zuen Habachek. Honek azaldu zuenez, «Bush eta Bakerrek antolatutako bake konferentziak ez du arabiar eta israelarren arteko arazoa konpontuko».

Habachek zuzentzen duen Askapenerako Fronte Herrikoia PAEren barnean dagoen bigarren erakunde garrantzitsua da. Liderrak azaldu zuenez Palestinako Kongresu Nazionalak, palestinarrek exilioan duten Gobernuak, bake konferentzia ez zuten onartu behar. Habachek adierazi zuenez, Palestinan bakea ezartzeko palestinarrek bere plana egin zuten Nazio Batuen partehartzea kontutuan hartuz. Palestinaren ordezkarik bakar PAE zela esan ondoren, bere herriaren ordezkariak inposatzeko eskubidea nazioarteko agintarien eskuetan ez zegoela azaldu zuen.

nazio arazoak / gutxiengoak

Estatu laikoa ala independentzia

Hegoaldea

Sudan hegoaldean gerra zibilean ari den APLS (Sudaneko Herri Askapenerako Armada) gerrillan zatiketa gertatu da azken asteotan. Gerrila honetako buruzagiak, John Garang koronelak, Sudan osoan erregimen politiko berria ezarri nahi du, baina bere kontra jaiki dira APLSko beste hiru komandante. Hauek beste konponbide bat proposatu diote gerrari: Sudan hegoaldea independente bihurtzea eta egungo estatua bitan zatitzea. Garang koronelak ez du disidentzia onartu eta APLS guztia bere kontrolpean dagoela berretsi du. Independentzia asmoa ere errefusatu egin du. «Sudan bakarraren bakerik eta Hego eta Iparraldearen arteko zatiketak izan Sudanen».

Sudan

Israielek askatu preso xiiiek argi dezakete Mendebaldekoen etorkizuna

Agintari israeldarrek Iranen esku dagoela azken erabakia azaldu dute

Herenegun, Israielek 51 preso xii askatu zituen duela hilabete eta gutxi hasitako Mendebaldeko eta Israieleko presoekin elkartrukarean prozesuari jarraipena emanez. Elkartrukaketa hau Ekialde Erdiko Bake Konferentziaren barnean sartu behar da, datorren urrian hastekoa den baina oraindik puntu asko zintzilik dauden Bake Konferentziaren barnean.


DONOSTIA

Israielek preso xii gehiago askatuko dituela adierazi du, preso guztien elkartrukaketaren negoziaketak aurrera egiten duen heinean. David Levy-k, Kanpo Arazoetarako ministro israeldarrek ere hala adierazi zuen atzo, «atzo askatutako 51 preso libanarrekin etapetako prozesuari hasiera eman zitzaioela» truke orokorrera heldu arte.

Israelen iritziz, akordio orokortara iristeko azken hitza Iranek dauka, horrek ordezkatzeko bait ditu elkarriketetan Hizbula eta Jihad taldeak. Israelen arabera, Iranek bere harremanak normalizatu egin nahi ditu beste Estatu guztiekin, baina Mendebaldeko presoaren arazoak galarazten dio hori. Siriak ere interes bera izango luke.

Israieleko emisora estatalkak atzo adierazi zuen gaur emango dela eza gutzera, herenegun Nazio Batuetako idazkari nagusiak, Javier Perez de Cuellarrek eta Iraneko Kanpo Arazoetarako ministroak izandako elkarriketaren emaitza.

Justizia Iraultzaileko Erakundeak, talde xiiak iragarri zuen talde estremista musulmanen esku dauden Mendebaldeko presoaren etorkizunak



Israielek askatutako preso xii bat garaipen zeinua egiten. /

AHMED AZAKIR.

Justizia Iraultzaileko Erakundearen izeneko talde xiiak iragarri du talde estremisten esku dauden Mendebaldeko presoaren etorkizunak «amaiera zoriontsua izango duela»

«amaiera zoriontsua izango duela», eta beren borondate oneko froga bezala 1989an beren esku hartutako Mann hiritar britaniarraren argazkia zabaldu zuen komunikabideetara.

Talde estremista musulmanak eginiko iragarpena Israielek El Hiam gartzelan zeuden 51 preso xii askatu ondoren eman zuen. Presondegiatan hildako bederatzi presoren gorpuak ere itzuli zituen Israielek. Mohamed Mehdi Chamsedim buruzagi izpiritual xiiak asteazkenean adierazi zuen 51 preso hauen askapena «Israielek eginiko keinu baikorra dela».

Shamirrek Atzerri ministroa bake konferentziatik kanpo utzi zuen

JERUSALEM

Yitzhak Shamir Israieleko lehen ministroak David Levy Atzerri ministroa Ekialde Erdiko bake konferentziatik kanpo uztea erabaki zuen, «Haaretz» egunkariak zioenez. Egunkari horren arabera, Levyk bake konferentzian ez bazuen parte hartzen Israieleko Gobernuaren krisia sor zitekeen. Levy beti azaldu zen arabiar eta israeldarrek parte hartuko zuten bake konferentzia baten alde. Dena den, Shamirren Gobernuaren bake konferentziaren alde eta kontra dauden ministroak aurki daitezke, koalizio barruan alderdi kontserbadorea ez ezik alderdi ultraeskuindarrak ere bait daude.

Shamirrek negoziaketari buruzko informazioa biltzeko agindua eman zien Yosi Ben Aharon lehen ministroaren bulegoko zuzendariari eta Eliakim Rubinstein Gobernuaren idazkariari. Levy Atzerri ministroak negoziaketetan bigarren mailako arazoak «koordinatu» beharko zituen, iturri ofizialek azaldu zuten. Atzerri Ministeritzako ordezkariak ez zegoen Shamirrek konferentzia prestatzeko egin zuen bileretan, Tel Aviv-eko egunkariak adierazi zuenez.

Bake konferentzian Israieleko eta lurralde okupatutako ordezkariak berehala negoziaketetan hasi beharko dute urria. Konferentzian ez dute parte hartuko PAEko ordezkariak ezta ere Jerusalemeko palestinarrenak.

LABURREAN

AFRIKAN jadanik 800 milioi lagun bizi dira

Afrikan urtero biztanlegoa % 3 hazten da, munduan inongo gertatzen ez dena. Bertan 800 milioi lagun bizi dira Nazio Batuen informazioek diotenez, duela hamar urte baino 319 milioi gehiago. Hegoamerikan eta Asian biztanlegoa urtero % 2 igotzen da eta jaisten doa. Afrikan emakume bakoitzak sei seme-alaba edukitzen ditu eta hilkortasun tasa munduko handiena da. Gaur egun Afrikan bizi direnek 56 urteko bizi itxaropena baino ez dute •

CHILEN milaka lagun Allenderen omenaldian

Milaka lagun bildu ziren atzo Salvador Allenderen heriotzaren 18. urtemuga ospatzeko. Chileko lehendakaria zenaren hilobiaren aurretik desgertuen senditartekoak eta zenbait agintari pasa ziren. Hortensia Bussi lehendakariaren alarguna ere bertan izan zen. Allendek Augusto Pinochetek Estatu kolpea jo zuenean Lehendakariaren Jauregian metraileta eskuan zuela sartu eta kolpisten bonbardaketari eutsi zion •

EEBBetan ikasle batek bere lagunak bahitu zituen

Estatu Batuetako Hego Dakota estatuan 17 urteko ikasle batek maisuari kasetik irten erazi ondoren bere lagunak bahitu zituen kanoiak moztuta zituen eskopeta batekin. Beste klaseko ikasleek tiroren bat aditu zutela esan arren, zauriturik ez zegoela adierazi zuten ikastetxe arduradunek. Poliziak barne telefono batetik hitzegin zuen bahitzailearekin eta honek pizza bat baino ez zuela eskatu azaldu zuten •

HEGO AFRIKAN 4 hildako beltzen auzoetan

Johannesburg hiriko Vosloorus auzoan 4 lagun tiroz hil zituzten autobus geltokian itxaroten zeudenean. Poliziak azaldu zuenez tiroak AK-47 fusilekin egin zituzten bertatik pasa ziren gizon batzuek. Afrikako Kongresu Nazionalak gogor kritikatu zituen Hego Afrikako agintariak. Alderdi horretako arduradunek esan zuten, Poliziak ez zuen ezer egiten armatuak zihoazen gizonak kontrolatzeko eta askatasun osoa zuten beltzen auzoetan sarraskiak egiteko •

Sudan

■ **Herriak.** 24 milioi biztanle ditu Sudan-ek, 2,5 milioi kilometro karratuko lurralde zabal batean. Etnia dominantea arabiarra da, baina bertako etnia beltz ugari daude. Hegoaldeko etnia afrikar garrantzitsuenak Dinka, Zande, Bari eta Nuer herriak dira, besteak beste.

■ **Erljiok.** Estatistiken arabera, populazioaren % 73 musulmana da. % 17 dira animistak edo erlijio etnikoak dituztenak eta gainerakoak kristauak, zenbait korrontetan zatituta.

mugimenduaren inguruko base zibil eta intelektual zabalek, Garang utzi dute eta beste independentista batzuekin bildu dira, Anyanya II mugimendukoekin. Hori beste gerrila bat da, aspalditik sezesioaren alde ari dena eta iraganean APLSren kontra ere borrokan aritu dena.

APLSko zatiketa agerikoa da jadanik. Buruzagiren batzuek, eta